



**EUROPAKO BATZORDEAK EUROPAKO PARLAMENTUARI ETA KONTSEILUARI HELARAZITAKO KOMUNIKAZIOA EBrako bidaiak ez-funtsezkoen aldi baterako murrizketaren aplikazioaren egiaztapen-zerrendaren/hirugarren ebaluazioaren inguruan**

Batzordeak egiaztapen-zerrenda hau egin du, EBrako bidaiak ez-funtsezkoetarako aldi baterako murrizketa kentzeko erabiliko dena. Egiaztapen-zerrenda honen xedea da UE+<sup>1</sup> gunearen barruan ikuspegi komun bat aurkitzea, hirugarren herrialde bateko egoera eta birusaren hedapena mugatzeko hartutako neurriak UE+ gunearan bidaiak ez-funtsezkoen murrizketa kentzeko nahiko egokiak diren ebaluatzeko.

1. Jo daiteke herrialdea UE+ guneko batez bestekoaren antzeko egoera epidemiologikoan edo egoera hobean dagoela honi dagokionez:
  - a. Infekzio-kasu berrien kopurua,
  - b. Infekzio berrien joera eta aurreikuspena,
  - c. COVID-19aren aurrean emandako erantzuna, besteak beste, honako alderdi hauei buruz eskuragarri dagoen informazioa aintzat hartuz: probak, zaintzak, kontaktuen lokalizazioa, eustea, tratamendua eta txostenak.
2. Bermatzen da herrialdeak EBrenarekin aldera daitekeen maila duela edo maila hobea duela bertako garraio-operadore eta garraio-zentroen euste-neurriei dagokienez, nazioarteko bidaiekin lotutako infekzio-arriskua murrizteko urrutze fisikoa barne. Hori guztia Europako Batzordeak igorritako gomendioaren arabera eta, zehazki, Aire Segurtasuneko Europako Agentziak (ASEA) eta Gaixotasunen Prebentzio eta Kontrolerako Europako Zentroak (ECDC) igorritako COVID-19 Aire Osasuneko Segurtasun-protokoloari <sup>2</sup>edo baliokide bati dagokionez:
  - a. Abiapunturainoko ibilbidean zehar,
  - b. Abiapuntuetan,
  - c. Bidaian zehar, irteeratik helmugaraino.

Elementu hauek ere hartu behar dira kontuan:

- A. Aireportuek HEZINERen<sup>3</sup> segurtasun-gomendioak betetzen al dituzte?
- B. Berariazko ibilbideak egiten dituzten aire-lineek HEZINERen gomendioak betetzen al dituzte?
- C. Aireportuak ASEAREN zerrendan al daude?
- D. Estatu Kide gehienetan, herrialde horrentzako bidaiak-gomendio negatiborik al dago?

---

<sup>1</sup>“UE+ gunearan” 30 herrialde daude: EBko 27 Estatu Kideetatik 26 eta Schengengo lau estatu elkartuak: Islandia, Liechtenstein, Norvegia eta Suitza.

<sup>2</sup> <https://www.easa.europa.eu/document-library/general-publications/covid-19-aviation-health-safety-protocol>

<sup>3</sup>Hegazkineria Zibilaren Nazioarteko Erakundea

**LEHENDAKARITZA**

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia

**PRESIDENCIA**

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia

- E. Bidaiatzen ari diren pertsonen dagokienez, aire-lineek egiaztatzen al dute abiapuntu-herrialdea bidaiamurrizketak kendu zaizkien herrialdeen zerrendan dagoen?
3. Herrialdeak bidaiak akordio konparagarriak onartzen al ditu EBrekin? EBko eta Schengengo estatu guztiei aplikatzen zaie?
4. EBko Estatu Kideek eta Schengen Estatuak herrialde horrentzako bidaiarohartarazpenak kendu al dituzte?